

2013-2015eko PLAN ESTRATEGIKOAREN AGINTE-KOADRO OSOA

CMI EREMUAK	ILDO ESTRATEGIKOA	HELBURUAREN deskribapena	EKINTZA ESTRATEGIKOAK (5 W eta H 1)
GIZARTEAN PRESENTZIA ETA ERAGINA	Gizartean presentzia eta onespren handiagoak lortzea (ezagutu gaitzate) eta gero eta eragin handiagoa izatea administrazio publikoetan	Eremu guztietan Arartekoaren erakundearen ezagutza sendotzea, beraren aginte moral eta eragin-gaitasuna finkatzeko	<p>Arartekoa eta Arartekoaren erakundearen lantaldea administrazio publikoaren aurrean, gizartearen aurrean (gizarte erakundearen aurrean batik bat) eta komunikabideen aurrean erreferente argi eta beharrezko gisa agerraraziko duten jarduketak identifikatzea.</p> <p>Gizartean, komunikabideetan eta administrazio eta erakunde publikoetan Arartekoaren posizioa eta onspena hobetzeko proposamena egitea, bera delako erakundearen arduradun gorena eta jendeak erakundearekin identifikatzen duelako.</p> <p>Proposamen bat egitea, Arartekoaren ondokoaren solaskidetzeta eta eragiteko gaitasuna hobetzeko, hiriburuak ez diren udalekiko harremanetan, eta bere funtzioak betetzen dituen eremuetan beraren posizioa eta onspena hobetzeko.</p> <p>Haurren eta Nerabeen Bulegoaren zuzendariaren solaskidetzeta eta eragiteko gaitasuna, bere eskumenen eremuan, hobetzeko proposamena egitea</p> <p>Arloetako arduradun diren aholkulariek administrazio publikoekin eta gizarte elkarrekin duten elkarrekin hobetzeko proposamena egitea.</p> <p>Idazkari nagusiak idazkaritza nagusiekin edo kexa-espedituen kudeaketaren arduradun diren funtzionarioekin daukan solaskidetzeta eta eragiteko gaitasuna hobetzeko proposamena egitea, batez ere errekerimenduei dagokienean.</p> <p>Arartekoaren zuzendariaren solaskidetzeta, administrazioen eta erakundearen arduradunekin, beren eskumenak betetzean, hobetzeko proposamena egitea.</p> <p>Komunikazio plan bat egitea, Plan Estrategikoaren esparruan, Arartekoa indarrez posizionatzeko diseinatutako komunikazio-estrategia garatzen duen lantalde iraunkor bat sortzen duena</p> <p>"Informazio-pilulak" sortzeko aukera aztertzea, gure lana komunikabideen, gure webgunearen eta gizarte-sareen bidez modu eraginkorragoan jakitera emateko</p> <p>Mezu propioa diseinatzea gardentasunaren eta herritarren partaidetzaren gaitan</p>
		Gizartea hobeto ezagutzea eta gizartean gertatzen dena hobeto jakitea, bai toki bakoitzean bai globalki	<p>Gizartearen benetako premiak ahalik eta hoberen entzuteko eta aztertzeko behar diren jarduketak egitea, komunikabideen, gizarte elkarrekin eta gizarte-sareen bidez.</p> <p>Detektatzen diren premiak lehentasunaren arabera antolatzea, plangintzan sartzeko.</p> <p>Lantalde txiki bat sortzea, sistematika eta maiztasun jakin batzuekin batzartuko dena, eta herritarren premia eta kezka nagusien diagnostikoa egiten duena.</p>
		Harremanak areagotzea gizarte elkarrekin, baita arduradun politikoeekin eta iritzi-liderrekin ere, beharizanak eta disfuntzioak identifikatzeko, komunikazio-bideak hobetzeko eta, era berean, Arartekoaz eta erakundearen lan egiten dugunoz dagoen ezagutza eta onspena hobetzeko.	<p>Elkar eragiteko garrantzirik handien duten interes-taldeak identifikatzea.</p> <p>Adituen iritziak entzuten egon behar dugun foroak lehenestea.</p> <p>Eragin handiko pertsonak identifikatzea eta gonbidatzea, gure kontrastea osatzeko</p>
		Arartekoaren erakundeak egiten duen lana jakitera ematea, eta lan hori profesionaltasunez eta zorrotzasunez egiten dela erakustea.	<p>Webgunean eta komunikabideetan gure inpaktuen berri ematea</p> <p>Komunikabideekiko harremanak eta kontaktuak hobetzea, bai maila gorenean (zuzendariekin), bai Arartekoaren lanaren inguruko albisteak ematen dituzten kazetariekin</p> <p>Twitter tresna ahalik eta gehien sendotzea, eta beste sare batzuetan ere sartzeko aukera aztertzea</p> <p>Gizarte-sareetan daukagun presentzia ebaluatzea, eta haietan dugun presentzia hobetzeko irizpideak finkatzea</p> <p>Adingabeek eta gazteek erabiltzen dituzten gizarte-sareetan (Tuenti etab) egoteko modurik egokiena aztertzea</p> <p>Gure web ataria interneten hobeto posizionatzea, beraren edukia gero eta ezagunagoak izan daitezzen eta sarean erreferentzia gisa erabil daitezzen</p> <p>Arartekoaren lana komunikabideen bidez ahalik eta hoberen komunikatzeko eta transmititzeko irizpide argiak finkatzea</p> <p>Gure lana jakinarazteko ekintzak egin behar diren puntuak barneko lan prozesuetan integratzea.</p>

JARDUERA	Lidergoa giza eskubideen defentsan.	Administrazio publikoen aurrean egiten dugun lanaren eragin-gaitasuna eta eraginkortasuna areagotzea, baita gizarte elkarteekiko solaskidetza eta elkar eragiteko gaitasuna ere.	Administrazioekiko harremanak hobetzeko jarduketeta plana, gure jarduketak azaltzeko eta eraginkorragoak izateko.
		Giza eskubideak defendatzen dituzten erakundeen sareko kide izatea eta beraientzat erreferentea izatea.	Urtero gizarte eragileekin lankidetzan aritzeko urteko plana, estrategiarekin lerrotatuta. Plan honetan aliantza estrategikoak lehenetsiko dira.
			Ekintza eta erlazio plan bat egitea giza eskubideen nazioarteko erakundeekin.
			Gizarte beharriaren antena-lana egitea eta eskaerari aurre egitea, ofizios sarriago jardunez.
			Arloen jarduketeta planak sustatzea, Arartekoak definitutako strategiarekin bat etorriz.
	Arartekoaren jarduketetan proaktibotasuna gehitzea.	Arlo bakoitzeko jarduketeta planak egitean parte hartzea bermatzea, zerikusia duten gainerako arloen partaidetzarekin.	
ZERBITZUAK	Arartekoaren zerbitzuen erabiltzaileen gogobetetzea hobetzea.	Ahalik eta hizkerarik errazena eta hurbilena erabiltzea gure ebazpenak eta gure lana jakinarazterakoan	Herritarrei ebazpenak nola jakinarazten zaizkien berrikustea, ulergarriagoak eta argiagoak izan daitezen.
			Arartekoaren zerbitzuen erabiltzaileen balorazioa jakiteko erabiltzen den metodologia berrikustea eta hobetzea.
		Gure erabiltzaileek Arartekoarengandik jasotzen dituzten zerbitzuen eta arretaren gaineko iritzia jakitea	Emandako zerbitzuen balorazioa jakiteko azterlanak egitea, eta ondorioen arabera hobekuntza planak sortzea.
			Zerbitzuen Gutuneko kexak eta iradokizunak aztertzea eta horren arabera hobekuntza planak garatzea.
		Jarduera pribatukoak diren baina interes orokorra duten sektoreetara Arartekoaren jarduketeta-eremuak zabaltzea.	Finantza-zerbitzuei buruzko foroak antolatzea
	Jarduera ekonomikoarekin zerikusia duten arloei buruzko plan espezifikoak, interes orokorreko zerbitzuei dagozkien jarduketak barruan hartzen dituenak		